


Euskal AEko BPG urte arteko %3,0 gehitu da urte artean 2017ko hirugarren hiruhilekoan

Enplegua jarduera adar guztietan gehitu da; %2,1 urte artean

2017ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %3,0 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,7ko hazkundera.

2017ko urriaren 27ko Kontuen Aurrerapenean hamarren bat gutxiago aurreikusten zen; datu berdina hiruhileko artean.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskaintzaren ikuspegitik, 2017ko hirugarren hiruhileko BPGren urte arteko hazkundera jarduera-sektore guztiei zor zaie, lehen sektoreari izan ezik.

Industria, hiruhileko honetan, %2,7 gehitu da urte artean; bigarrenean baino lau hamarren gehiago. Urte arteko honek puntu bat eta zortzi hamarrenen gehikuntza dakar hiruhileko artean. Manufaktura industrian %2,5 urte artean eta %1,4 hiruhileko artean.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015	2016	2016		2017		
			III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	13,1	2,0	1,7	-1,5	4,2	-1,9	-1,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	3,1	2,9	2,6	2,7	2,0	2,3	2,7
Manufaktura-industria	4,1	3,7	3,4	3,6	2,2	2,7	2,5
ERAIKUNTZA	1,1	1,8	2,2	2,4	2,1	1,9	3,0
ZERBITZUAK	3,5	2,8	2,3	2,7	3,0	3,2	3,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	5,0	3,3	3,0	3,2	3,9	3,7	3,8
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,5	2,1	1,7	2,4	2,3	3,1	2,6
Gainerako zerbitzuak	3,6	2,8	2,3	2,4	2,7	3,0	3,0
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	3,3	2,7	2,4	2,6	2,7	2,9	3,0
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	1,1	6,8	8,4	6,4	3,3	2,4	3,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,1	3,1	3,0	3,0	2,8	2,9	3,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntza %3,0 gehitu da urte artean, bigarren hiruhilekoan baino puntu bat eta hamarren bat gehiago; hiruhileko artean %0,9.

Zerbitzuetan urte arteko %3,1eko hazkundea; hiruhileko artean, lehengoan. Azpisektore guztiak positiboan, indar ezberdinez: **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %3,8; **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) %3,0. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,6.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016		2017		
	III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	-0,4	2,0	-1,7	-1,8	-0,4
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,5	0,8	-1,1	1,1	1,8
Manufaktura-industria	1,5	0,5	0,3	0,4	1,4
ERAIKUNTZA	-0,2	4,4	-2,3	0,1	0,9
ZERBITZUAK	0,2	0,6	1,6	0,9	0,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,3	1,8	1,6	0,0	0,4
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	-0,1	-1,2	2,3	2,1	-0,6
Gainerako zerbitzuak	0,2	0,7	1,2	0,9	0,2
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,5	0,9	0,7	0,9	0,5
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	2,2	-1,3	0,5	1,1	2,8
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,6	0,7	0,9	0,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Hiruhileko artean, **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,4; **Gainerako zerbitzuak** %0,2; **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %0,6.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko positiboa ekarri du (%3,0); 2017ko bigarren hiruhilekoan baino hamarren bat handiagoa. Hiruhileko artean %0,5eko hazkundera.

Eskariaren aldetik, bi gauza aipagarri BPGri buruz. %3,1eko hazkundera Barne Eskarian. Bi osagaiak (Azken kontsumoko gastua, Kapital eraketa gordina) positiboan; urte artean aurreko hiruhilekoan baino zertxobait gehiago gehitu.

Kanpo sektorean: esportazioak %3,7 gehitu; inportazioak %3,9. BPGren hazkunderari hamarren bat kentzen dio sektoreak.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuan (Kontsumo Pribatua) %3,0ko gehikuntza urte artean, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. Hiruhileko arteko tasa, %0,3; bigarren hiruhilekoan baino gutxiago.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015	2016	2016		2017		
			III	IV	I	II	III
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	3,1	2,9	2,5	3,1	2,9	2,6	2,9
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	3,3	3,1	3,0	3,1	3,0	3,0	3,0
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	2,1	2,3	0,8	3,1	2,6	1,2	2,7
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	3,8	3,1	2,3	2,9	3,0	3,2	3,9
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	7,3	5,3	2,6	4,3	4,2	5,4	4,5
Gainerako kapital-eraketa gordina	2,0	1,8	2,1	2,1	2,2	1,9	3,5
BARNE-ESKARIA	3,2	3,0	2,5	3,0	2,9	2,7	3,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	1,2	1,5	0,8	-0,5	1,5	1,9	3,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	1,2	1,5	0,3	-0,2	1,9	1,8	3,9
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,1	3,1	3,0	3,0	2,8	2,9	3,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Kontsumo Publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua) Hazkunde-tasa, %0,4 aurreko hiruhilekoaren aldean; %2,7 urte artean.

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetako) %2,9 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean %0,3 gehitu.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %3,9 gehitu da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren gehiago.

Berriz ere inbertsioaren jokaera indar ezberdindun bi bilakaeratan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %4,5 gehitu da urte artean, bigarren hiruhilekoan baino gutxiago. Urte arteko honek %2,0ko gehikuntza ekarri aurreko hiruhilekoaren aldean. Kapital eraketa gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- %3,5eko gehikuntza urte artean, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat eta sei hamarren gehiago.

Guztira, **Barne Eskaria** %3,1 gehitu da.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016		2017		
	III	IV	I	II	III
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,0	0,4	1,7	0,5	0,3
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	0,2	0,3	0,4	2,0	0,3
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	-1,0	1,0	6,4	-4,9	0,4
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	0,7	2,1	-0,1	0,4	1,4
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	2,9	1,6	1,8	-0,9	2,0
Gainerako kapital-eraketa gordina	-0,6	2,4	-1,2	1,2	1,0
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-2,3	-2,1	0,3	6,2	-0,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK	-2,9	-1,8	1,3	5,4	-0,8
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,6	0,7	0,9	0,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Urte artean, **BPG** %3,1 gehitu da Bizkaian, hazkunderik handiena; %2,8 Araban eta Gipuzkoan. Hiruhileko artean Gipuzkoa %0,9 gehitu; Araba %0,7; Bizkaia %0,6.

Enplegua (**lanpostuak Dedikazio Osoko Baliokidetzan neurtuta**) %2,1 gehitu da urte artean; 2014tik positiboan. 2017ko bigarren hiruhilekoaren aldean, %0,3ko hazkundera.

Enplegua %2,3 gehitu da Zerbitzuetan urte artean.

Industrian %1,7 gehitu enplegua urte artean; eraikuntzan %1,5. Lehen sektorean %2,8 urte artean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62